

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

MONTORIAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

Lurzatiak lagatzea "Montoria" izeneko VI-10.149 ehiza esparrua berritzeko

VI-10.149 ehiza esparrua, "Montoria" izeneko, berritzean sartuta egongo direnez horren mugen barruan dauden lurzati pribatu zein publiko guztiak, Montoriako administrazio batzarra eragindako lurren jabeen baimenak biltzen ari da, Euskadiko ehizaren martxoaren 17ko 2/2011 Legeak 21. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Ondorio horretarako, ulertuko da ezen isilbidezko baimena ematen dutela horren kontrako idazkirik aurkezten ez dutenek iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hamabost egun balioduneko epean, eta administrazio batzar honek baimena duela ehiza esparru horretan sartzeko ezarritako epean kontra agertzen ez direnen lurzati eta finka guztiak.

Guztiek jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Montoria, 2020ko otsailaren 26a

Lehendakaria

JOSÉ LUIS ARMENTIA GAINZARAIN